

# ARMAGINTZA MOLDATU GIZARTEA ERALDATZEKO



# LARRUN #303



# GERRA HOTSEI AURRE EGIN BEHARRA

EGILEA | **ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**      AZALA | **IÑAKI LANDA**

**E**z gaude prest lauzpabost urte barru datorkigunerako. Arriskua zitzu bizian dator guregana. Aurre egin behar diogu: Ukrainan gertatzen ari dena hemen ere gerta liteke” (...) “Errusia, Txina, baina baita Ipar Korea eta Iran ere, gogor ari dira lanean Ipar Amerika eta Europa ahultzen saiatzeko. Ordena globala birmoldatu nahi dute” (...) “Gerra garaiko mentalitate batera aldatzeko garaia da. Eta defentsako ekoizpena eta gastua bizkortzekoa”.

Mark Rutte NAToko idazkari orokor izendatu berriaren hitzak dira, kargua hartuz geroztik egin duen bere lehen mintzaldi publikoan esanak, Bruselan, abenduaren 12an. Arriskuz beteriko orainaldia eta, NATOren errezetak ez jarraitzekotan, etorkizun amesgaiztokoa irudikatu zigun mendebaldarroi oro har eta europarroi zehazkiago. Zeintzuk

dira errezeta horiek? Azken urteotan etengabe entzun ditugun berdinak aurreko idazkari nagusi Jens Stoltenbergen ahotik, edo Europako Batzordeko presidente Ursula Von der Leyenenetik eta Europako hainbat estatutako agintarienetatik, edo hedabide dependente handien bozgorailuetatik. Horien guztien errezeta berdina, baina, hau ere azken urteotako dinamikari jarraiki, atzo baino koska bat gorago –bihar baino bat beherago–.

Inork ez du eskubiderik Mendebaldeari itzal egiteko, saiatzea bera eraso da, “gure bizi eredua” defendatzeak gerrarako prestatzea eskatzen du, eta “azkarragoak eta basatiagoak” izatea, Rutteren esanetan. Europako armagintza industria “txikiegia, zatikatuegia eta mantsoegia” da “hamarkadetako inbertsio eznahikoen” ondorioz, eta horri konponbidea jartzea hil ala biziko kontua da.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.902 zenbakiarekin banatua**

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGO A.S.A.L.    **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA    **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS    **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA    **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2025eko urtarrilaren 26a

---



2024an 75 urte bete dira NATO sortu zenetik. "Gure bizimodua" defendatzeko gerran "azkarragoak eta basatiagoak" izatera deitu du Mendebaldea antolakundearen idazkari idazkari orokor berriak.

Nola? Etxeko-lanak banatu zituen NATOko buruak: "Gobernu-uei: eman gure industriei behar dituzten eskaera handiak eta epe luzeko kontratuak, gaitasun gehiago eta hobeak azkar ekoizteko (...) Defentsa industriari: ahal duzun guztia egin behar duzu gu salbu mantentzeko. Dirua dago mahai gainean, eta handitu baino ez da egingo. Egin txanda gehigarriak eta ekoizpen-lerro berriak! (...) NATOko herrialdeetako herritarrei, batez ere Europan: esaiezue [agintariei] gaur sakrifizioak egitea onartzen duzuela bihar salbu egon gaitezene".

Zeintzuk dira herritarrek onartu behar dituzten "sakarfitzio" horiek? "Europako herrialdeek erraz gastatzen dute beren diru-sarreraren laurdena pentsio, osasun eta gizarte-segurantzako sistemetan. Diru horren zati txiki bat behar dugu".

## ELDARNIO MILITARISTA ASPALDI HASI ZEN

Ruttek biharko eskaera gisa aurkezten duen estrategia, baina, aspaldi ari da inposatzen. 2017tik, bere historian lehen aldiz, EBk gastu militarerako partida berezitu du. Europako Defentsa Funtsen aurrekontua asko hazi zen Ukrainako gerraren testuinguruan; 2021-2027 urteetarako aurreikusita zeuden 13.000 milioi euroak xahutu dituzte jada; eta EBko Defentsa Komisario Andrius Kubiliusek -kargua sortu berria da- 100.000 milioiko gastua proposatu du 2028-2035 aldirako. Horri guztiari estatu bakoitzak egiten duen gastu propioa gehitu behar zaio. NATOko Europako herrialdeek 2014an onartu zuten -Bakearen Nobel saridun Obamaren mehatxupean- gastu militarra BPGren %2ra igotzeko helburua eta ordutik hazkundera etengabea izan da,

bereziki azken urteotan. Osasun, hezkuntza, pentsio edo prestazio publikoetara bideratutako gastuak behera egin du, bien bitartean.

Ez da nahikoa, ordea. Bruselan Ruttek estatuentzako %3ko langa berria iradoki zuen... edo %4koa. Baita estatu-erakunde bankuek eta pentsio funtsek armagintzan inbertitzeko duten debekua bertan behera uztea ere. EB mailan, Europako Inbertsio Bankuarekin berdina lortzeko presioa egiten ari dira aspaldi agintariak eta armagintza lobbya.

Bada beste aldaketa funtsezko bat. Iraganeko Europak arma ia guztiak AEBei erosten zizkion. 2024an Europako Defentsa Estrategia Industrialak aurkeztu zuen Europako Batzordeak. Estrategia berriak baldintza bezala ezarri du EBko gastu militarren %50a behintzat bertako herrialdeetako industrian egitea, gutxienik hiru



herrialderen parte hartzearekin. Europako armagintza industria gartzea estrategikotzat jo du EBk, eta dirua eta bestelako erraztasunak ez dira faltako.

## EUSKAL HERRIA, MENDEBALDEAREN ISLA

Gasteizkoak alde antimilitaristak Europako armagintzaren eta diskurtso gerrazaleen azterketa egin du argitaratu berri duen *Conversión de la industria militar en Euskal Herria para no fabricar más guerras* (Armagintza industriaren moldaketa Euskal Herrian, gerra gehiago ez sortzeko) liburuan. Eta horrek Hego Euskal Herrian duen isla jarri digu begien aurrean ikerketa sakon batekin. Ipar Euskal Herriko armagintza ez dute aztertu datuak lortzeko zailtasunak are handiagoak direlako. 2008ko ikerketan armagintzari loturiko 70 enpresa, ikerketa zentro edo erakunde identifikatu bazituen, hamabost urte beranduago 206, eta uste dute egiazki egiazki “nabarmen gehiago” direla. 206 horietatik 187 enpresak dira, 11 zentro teknologikoak edo ikerketakoak, bost unibertsitateak eta hiru finantza erakundeak.

Hainbat faktorek azaltzen dute hamabost urtetan armagintza hiru-koiztu izana, Gasteizkoaken arabera, besteak beste honako hauek: aurrekontu militarren eta laguntzen “izugarritzko gorakada”, ikerketa zibilaren “kaptazioa” industria militarren eskutik, enpresa txiki eta ertainen eta bereziki teknologia berriei loturikoen paper protagonista, hezkuntza zentroen inplikazio gero eta handiagoa, armagintzako euskal enpresa handien zabalkundea nazioartera, edo, denetan kezka-garriena akaso, euskal herritarren artean hedatzen ari den armagintzarekiko “mentalitate berria”.

“Duela urte gutxi arte militarismoarekin eta estamentu militarrekin lankidetzak gisa uler zitekeen



guztiak gaitzespena eta arbuioa eragiten bazuen Euskal Herriko gizartearen gehiengo zabalaren artean, gaur egun ez da horrela”, irakurri daiteke liburuan: 2008an enpresek ezkutatu egiten zuten beren produkzio militarra; 2025ean askok aldarrikatu egiten dute. Ez da Gasteizkoak taldeak soilik antzematen duen aldaketa. LARRUN honetan elkarrizketatutako sindikalistetako batek dio nabaritu dutela langileek lehen lotsaz bizi zutela armagintzan aritzea, eta gaur ez. Onarpen berdina sumatu dute enpresarietako ere, edo Iñaki Etaio EHUKo irakasleak armagintzarekin harremana duten lankide eta ikasleen artean, liburuan irakurri daitekeenez. Ruttek eskatzen duen “gerra mentalitatean” sakontzen jarraitzeko lur ongarrirua da.

## ERALDATU ALA ERAIL

Europa eta Euskal Herri mailako testuinguru horretan, mugimendu antimilitaristak armagintza industriaren moldaketarako proposamena jarri du mahai gainean. Moldaketa “eraldatzailerako”, zehaztu nahi izan dute: ez du bilatzen soi-

lik produkzio militarra zibilgatik ordezkatzeko; baita produzitzen denak eta produzitzeko moduak beste gizarte bat elikatzea ere, honaino ekarri gaituzten kapitalismoarekin eta patriarkatuarekin amaitzea xede.

ARGIAk antimilitaristekin eta lantokietan ezinbesteko papera jokatuko beharko luketen sindikatuekin hitz egin du proposamenaren inguruan. Zintzotasuna darie bartzuen zein besteen hitzei, horregatik zailtasun asko aurkituko ditu irakurleak haien hitzetan, baina baita saiatzeko prestutasuna ere, eta indargunereren bat. Indargune horietako bat azpimarratzearen: Mendebaldeko zenbat herrialdeetako gehiengo sindikala dago prest gaur egun tankerako proposamen bat aintzat hartzeko?

303. LARRUN honetan armagintzaren “moldaketa eraldatzailerako” egitasmoan sakondu dugu. Jakitun ia ameskeria hutsa ematen duela proposamenak; jakitun espeziearenak egingo ez badu hori ere egin beharko dela noizbait, ez soilik armagintzarekin, baita lanarekin eta enpleguarekin oro har ere.



# “Ezin dugu nor bere aldetik joan, erronka komunak ditugu”

## ARMAGINTZA INDUSTRIAREN “MOLDAKETA ERALDATZAILERAKO”

### PROPOSAMEN ANTIMILITARISTA

Armagintzaren “moldaketa eraldatzailerako” proposamena publiko egin berri du mugimendu antimilitaristak. *Conversión de la industria militar en Euskal Herria para no fabricar más guerras* (Armagintza industriaren moldaketa Euskal Herrian, gerra gehiago ez sortzeko) liburuan irakurri daitekeenez, “auzolan erraldoia” proposatzen du, Euskal Herriko produkzio militarra produkzio zibilarengatik ordezkatzeko. Noiz eta, liburu berean jaso duten ikerketak dioenez, Hego Euskal Herriko armagintza sektorea hazkunde betean dagoenean.

Antimilitaristek proposatzen duten moldaketak ekoizpen sistema kapitalista bera

auzitan jarri nahi du, baita klima larrialdia edo energia krisia bezalako gakoei erantzun ere, langileen lanpostuak arriskuan jarri gabe. Lan-tegian langileak eta sindikatuak lirateke protagonista nagusiak, kalean herri mugimenduak eta herritarrak, eta denak elkarren eskutik egin beharko lukete bidea. Euskal gehiengo sindikalarekin bilerak egin dituzte jada, eta pozik daude sindikatuak proposamenari egin dioten lehen harrerarekin. Proposamena eta aurreikusita dituzten hurrengo urratsak eza-gutzeko bildu gara Antonio Escalante Ruiz eta Susana Correal Cuevas Gasteizkoak talde antimilitaristako kideekin.

■ **‘Moldaketa eraldatzailerako’ proposamena aurkeztu zenuten publikoki abenduan, mugimendu antimilitarista osoa dago horren atzean?**

**ESCALANTE:** Bai eta ez. Antimilitaristak EH plataforman planteatu zen moldaketaren gaia, bertan gaude Hego Euskal Herriko talde antimilitarista guztiak. Talde gehienek adierazi zuten ez zeudela indarrez gaiari heltzeko, baina ondo ikusiko luketela norbaitek hartzea borroka esparru hori, eta Donostiako Bake Ekintza Antimilitarista taldea eta gu hasi ginen horretan.

■ **Proposamena lurreratzeko orduan, garrantzitsua da sektoreak ekonomian duen pisua ezagutzeta. Azken hamabost urteotan 70etik 206ra pasa dira produkzio militarrekin loturiko enpresa eta erakundeak, baina zenbateko fakturazioaz ari gara, eta zenbat lanpostuz?**

**CORREAL:** Oso zaila da datu horiek zehaztea, zaila baita datuak lortzea. Fakturazioari dagokionez, 2022rako, 700 eta 1.000 milioi euro artekoa ematen dugu. Baina gure datuak 2022koak dira, ordutik asko igo dira,

seguru: esaterako, ITPk %25eko hazkundera izan du 2022tik 2023ra. Lanpostuei dagokionez, 1.500eko zifra orientagarria ematen dugu. Ez dira sektore militarrekin lotura duten enpresen lanpostu guztiak, baizik eta enpresa horien barnean zehazki armagintzarekin lotutakoak.

■ **Armagintzarekin lotura duten 206 enpresa edo erakunde identifikatu dituzue zuen ikerketan. Horietatik bik dute produkzio militarra soilik: Sapa eta Excia Xemein. Besteetan**

**produkzio zibila da nagusi?  
Horrek moldaketarako aukerak  
areagotuko lituzke.**

**CORREAL:** Hemen ere datuak nekez lortu daitezke. Baina enpresa handienetan ez da nagusia armagintza, hori seguru, eta txikietan ez dakigu ziur, baina ezetz uste dugu ere. Edonola, arlo zibila ezagutzea lagungarria litzateke, bai.

**■ Moldaketarena ideia zaharra da, baina berrikuntza batzuk egin dituzue. Zeintzuk?**

**ESCALANTE:** Lehen bezala orain, produkzio militarra gizartearentzako onuragarria den produkzio zibilarengatik ordezkatzeari proposamenaren muina. Baina lehen ordezkatzeari ez genuen lotzen beste behar batzuekin, zentzu horretan nahiko autistak ginen, gurea konpondu eta listo; orain diogu produkzio berriak ekoizpen sistema kapitalista auzitan

jarri behar duela, klima larrialdiari, energia krisiari eta beste gako batzuei erantzun behar diola.



**“PRODUKZIO MILITARRA  
GIZARTEARENTZAKO  
ONURAGARRIA DEN  
PRODUKZIO ZIBILARENGATIK  
ORDEZKATZEA DA  
PROPOSAMENAREN MUINA”**

**■ Armagintzako langileekiko zuen jarreraren “autokritika” egin duzue.**

**ESCALANTE:** Garai batean ez genuen pentsatzen langile horietan, bost axola zitzaigun haiekin zer gertatu. Expal (Explosivos alaveses) enpresako esperientziak zeriku-

sia du horretan, ziurrenik. 1997an abiatu zen moldaketa saiakera, baldintzetako bat zen enpresaren zuzendaritzak edo langileek bat egitea proposamenarekin, ez zuten egin eta alperrik galdu genuen hiruzpatalu urtetako lana.

**■ Etsai bezala ere ikusi izan dituzue?**

**ESCALANTE:** Bai. Horren oinarrian ere esperientzia bat dago. Garai batean urtero martxa egiten genuen armagintza enpresen aurka, eta saiatsen ginen lantegi bakoitzeko enpresa batzordeekin harremanetan jartzen gaia lantzeko. Behin bakarrik lortu genuen batekin batzea, haiek pikutara bidaltzen gintuzten, eta guk haiek. Argi ikusi genuen bidea ez zela hori, hausnarketa prozesua goitik hasi behar zela, sindikatuek hartu behar zutela erabakia, eta pixkana-pixkana hausnarketa



DOSPORDOS

Gasteizkoak taldeko kideak Zapateneko kultur elkartearen sarreran, bertan egiten dituzte bilerak.



# LUCAS PLANA

## *Nazioarteko erreferentea*

**L**ucas Aerospace enpresa Europako aeronautika arloko handiena zen 1970eko hamarkadaren hasieran. Milaka langile zituen hamabost lantegitan banatuta, eta gutxi gorabehera bere produkzioaren erdia zen militarra. Baina enpresa krisian sartu zen, eta zuzendaritzak *irtenbide* bikoitza proposatu zuen armagintzaren pisua areagotu eta milaka langile kaleratu. Langileak batu eta kontraproposamena egin zioten zuzendaritzari. Borroka hura laburbildu du Gasteizkoak talde antimilitaristak bere azken liburuan.

Lehenik, Combine izeneko batzordea sortu zuten langileek, ordura arte nork bere batzordea zuen hamabost lantegietako ordezkariekin osatuta, zuzendaritzaren aurrean ahots bakarra izatea ahalbidetu ziena. Lanpostu guztiak mantendu nahi zituzten, baina ekoizten zutenarekiko ardura ere erakutsi zuten.

1974an langileak Britainia Handiko Gobernuko Negozio, Berrikuntza eta Industria Estrategiarako estatuko idazkari Tony Benn laboristarekin bildu ziren, gobernuari enpresa nazionalizatu zezala eskatzeko. Benn laboristen sektore ezkertiarrekoa zen, langileei adierazi zien ezin zuela nazionalizazioa egin, baina enpresarentzako plan alternatibo bat osatzea proposatu zien, eta Combinek erronkari eutsi.

Lantegi bakoitzeko langileek lantokiaren inbentarioa egin zuten (zenbat langile ziren eta ze gaitasunekin, azpiegitura, makineria...), eta pentsatu zuten gizartearentzako zein produktu "onuragarri" ekoiz-



**"EZ DUGU PASTEL  
GEHIAGORIK NAHI,  
OKINDEGIA  
ZUZENDU NAHI DUGU",  
ALDARRIKATU ZUTEN  
LUCASEKO LANGILEEK**

tu zezaketen. "Onuragarri" horren barnean produzitzeko modua ere aintzat hartu zuten, lan antolaketa kapitalistarekin apurtu nahian.

1976ko urtarrilean Lucas Plana aurkeztu zuten langileek. Armagintza baztertu eta ordezeko 150 produktu zehatz jaso zituen planak, sei arlotan banatuta: gailu medikuak, garraio autoak, balazta sistemak, energia aurrezteko gailuak, itsas-laborantzarakoak, eta urrutiko kontrolarekin lan egiteko makinak.

Planak harrera oso ona izan zuen garaiko herri mugimenduen artean, eta nazioarteko oihartzuna lortu zuen. Gobernu laboristak eta sindikatu nagusiek aldeko adierazpenak egin zituzten, baina ez zuten hura bultzatzeko neurri zehatzik hartu. Ordurako, Tony Benn estatu idazkaritzatik alboratua zuen bere alderdiak. Horrek guztiak erraztuta, zuzendaritzak ezezkkoa eman zion langileen planari.

"Jakina, sentitu zuten (arrazoi osoz!) plan alternatiboak beren 'administratzeko eskubidea' mehatxatzen zuela". Brian Salisburyren hitzak dira, Combine batzordearen

sortzaileetako bat. "Ez dugu pastel gehiagorik nahi, okindegia zuzendu nahi dugu", aldarrikatu zuten Lucaseko langileek.

### **MEÑDE ERDI GEROAGO, EREDU**

48 urteren ondoren, Lucas Plana armagintza moldatzeko eredu gisa hartu dute Euskal Herriko antimilitaristek. Eta ez dira bakarrik. 2016an, planaren 40. urteurrenean, nazioarteko konferentzia egin zuten Birminghamen, eta handik lantalde bat jaio zen, azterketa eta proposamen berriak egitea helburu. Bestelako ikerketak eta proposamenak ere argitaratu dira azken urteotan, orduko borroka gaurko ataka eta erronketara egokitu nahian.

Zergatik eredu? Oro har, Lucas Aerospacekoa "behetik gora" egin dako "demokrazia industrial eta langile kontrol" esperientzia dela defendatzen dute antimilitaristek. Horrez gain, langileek teknologia eta lan antolaketa ustez neutralen izaera politikoa azalerazi zuten, eta beren kontrola berreskuratzea proposatu. Plana ontzeko prozesuan esku langileen eta langile kualifikatuen arteko banaketa zurruna hautsi zuten, eta langileen zerumuga zabaldu zen: nor bere lan prozesuaren zeregin zehatz isolatura mugatetik, ikuspegi orokor eta estrategikoak eztabaidatzera igaro ziren. Azkenik, lantegietatik kanpo elkarlana sustatu zuten inguruko herritar, eragile eta sektore militanteekin, produzituko zena gizartearentzako benetan onuragarria izango zela ziurtatzeko.

eta eztabaida sustatu lantegi horietako langileen artean.

### ■ **Eta egun zein da zuen ikuspuntua?**

**CORREAL:** Guztiz kontrakoa: haiek izan behar dute moldaketaren protagonistak, ez bakarrak baina bai nagusiak, eta konplizitate oso estua eraiki behar da haien eta ekimenean parte hartu beharko luketen herri mugimenduen artean. Lantegian langileak eta sindikatuak dira eragile nagusi, kalean herri mugimenduak, baina denak eskutik, elkar elikatuz.

### ■ **"Auzolan erraldoia" proposatzen duzue. Zertan hezurmamitzen da hori?**

**CORREAL:** Munduan eta Euskal Herrian ditugun atakei erantzun nahi badiegu, ezin dugu nor bere alde tik joan. Amankomuneko erronka batzuk ditugu, esaterako, sistema produktiboa eraldatzea. Irakurketa partekatua egin behar dugu, elkarrekin lan egin eta indarrak batu. Nortzuen artean? Argi ikusten dugu feminismotik hainbat sektore sartzen direla, beste horrenbeste ekologismotik eta sindikalismotik. Eta gazteek ere egon behar dute, proposamena bultzatzen ari garenon adina

ikusita guk ez dugulako gauzatuko, eta beren etorkizuna dutelako jokoan. Hori hasteko, bidean bidelagun gehiago agertuko lirateke ziurrenik. Horrez gain, lortuko balitz lantegien inguruko herri eta herritarrekin konplizitatea eta lan komuna eraikitzea, tokiko beharrak identifikatu eta produkzioa horri begira jartzeko, izugarria litzateke.



## “LANTEGIAN LANGILEAK ETA SINDIKATUAK DIRA ERAGILE NAGUSI, KALEAN HERRI MUGIMENDUAK, BAINA DENAK ESKUTIK”

### ■ **Bilera bana egin duzue ELA, LAB, Steilas eta ESK sindikatuekin. Nola joan dira lehen kontaktu horiek?**

**ESCALANTE:** Gure aldetik horretaz publikoki gehiegi ez hitz egitea erabaki dugu, prozesua bera zaintzeko. Edonola dela, bai esan dezakegu, oro har eta nire harridurarako, iku-

si dugula gure proposamena ulertzen dutela bere sakontasunean, gu lau antimilitarista ziztrin izanda. Eta kontziente direla horrelako zer edo zer egin beharra dagoela, aldi berean zailtasunak oso handiak direla aitortuta. Ez da gutxi, hasteko.

**CORREAL:** Hiztegi komun bat partekatzen dugula ikusi dugu. Armagintzaz harago zenbait sektoretan krisian daude, eta badakite ekoizpen sistemaren eraldaketa sakona ezinbestekoa dela. Lucas Planaren [ikus 7. orria] esperientziak asko balio izan digu, moldaketa nola egin hausnartzeko eta egin egin daitekeela sinesteko.

### ■ **Lucas Plana oso interesgarria da, bai, baina ez zen lortu burutzea. Besteak beste, erakunde publikoek ez zutelako babestu. Liburuan beste hainbat moldaketa esperientzia bildu dituzue, gauzatudirenek estatuen babesa izan dute. Zer paper ematen diezue erakundeei?**

**ESCALANTE:** Hori guztion artean adostu beharko genuke, gure artean posizio ezberdinak egongo direlako, ziur. Nik ez nuke ahaztuko erakundeek kudeatzen duten dirua guztiona dela, jakinik ikerketa batzuk egiteko, eta zer esanik ez moldaketa bera abian jartzeko, zer diru kopuru beharko liratekeen. Planteatzen ari garena ulertarazi eta ikusarazteko, esperientzia txiki batekin hastea litzateke egokiena. Kasu horretan, lantegia dagoen herriko udalari ekimenaren nondik norakoak argi utzita, eta argi utzita ere bere papera ez dela protagonista izatea baizik eta diruarekin eta azpiegiturrekin laguntzea, horretarako prest balego, aurrera. Dena den, irekia izango nintzateke, bideak esango du norekin eta nola eraiki elkarlana.

### ■ **Diozuen moduan esperientzia txiki batetik abiatuz gero, zeintzuk lirateke lehen urratsak?**





**CORREAL:** Ez dugu gehiegi zehaztu, uste dugulako hasieratik sindikatuek eta langileek paper garrantzitsua bete behar dutela. Baina Lucas Aerospace erreferentzia izan daiteke berriz ere: Produktu Alternatiboen Batzordea sortu zuten lantegian bertan, langileek aztertu zezaten zer produktu ekoizteko aukera zuten armagintzakoak ordezkatzeko, eta horrekin eztabaida sustatzeko. Edo unibertsitate eta zentro teknologikoetako ezkerreko ikerlariekin elkarlan esparruak sortu zituzten helburu berdinerako. Eztabaida hori hauspotzeko beste ideia posible bat: lan hitzarmenean kontzientzia eragozpenerako eskubidea sartzea, enpresa baten adar militarrean parte ez hartzeko eskubidea bermatzeko.

Proba-errore dinamika bat izan beharko du. Edonola ere, ezin da urte gutxitan burutu, lantegian eta kalean eskatzen duen mentalitate aldaketa epe luzeagokoa da hala-beharrez.

■ **Lantegian produkzio militarra zibilarengatik ordezkatzeko alternatiba bideragarri bat mahaigaineratzea da helburua, baina lanpostuak auzitan jarri gabe.**

**ESCALANTE:** Bai

■ **Bideragarria termino kapitalistetan ere, hortaz?**

**ESCALANTE:** Ez. Prozesu horretan sistema produktibo kapitalista auzitan jartzen bada, unerren batean galdera batzuei erantzun beharko zaie: zer egiten dugu? Zertarako egiten dugu? Nola egiten dugu? Momentu horretan, erabakitzeko ahalmena berreskuratzen dugu. Hori nola gauzatzen da? Ikusiko dugu bidean, baina horraino ere heldu nahi dugu, bestela ez baikenuke kolokan jarriko ekoizpen sistema kapitalista.

■ **Zuen proposamenak lan eta gaitasun handia eskatzen du. Zein**



*Conversión de la industria militar en Euskal HERRIA para no fabricar más guerras (Armagintza industriaren moldaketa Euskal Herrian, gerra gehiago ez sortzeko), Gasteizkoak talde antimilitarista (Zapateneo, 2024).*



**“JASOTZEN DITUGUN ERANTZUNEN ARABERA ERABAKIKO DITUGU HURRENGO URRATSAK”**

**egoeran dago Euskal Herriko mugimendu antimilitarista?**

**ESCALANTE:** Egoera penagarrian. Guk heldu behar dugu proposamena luzatu eta lehen aldamaioa jartzera, hortik aurrera, atzera egin behar dugu. Ez gara gidariak izango, gihar aldetik ezin dugu, baina, horretaz gain, ez dugu nahi.

■ **Proposamena zuena izanda, hori ez al da zailtasun garrantzitsua?**

**ESCALANTE:** Segun eta nola begiratzen zaion. Planteamenduaren abiapuntua antimilitarista da, bai. Baina bidean sortuko diren eztabaidetan, ekoizpen sistemari da-

gozkionak esaterako, gu ez gara adituak, hor jakintza gehiago dute feministek, ekologistek...

■ **Sindikatuekin bildu eta proposamena publiko egin ostean, zeintzuk dira hurrengo urratsak?**

**CORREAL:** Hasteko sindikatuekin bildu behar dugu berriro, gure proposamenaren inguruko beren erantzuna jasotzeko.

**ESCALANTE:** Eta herri mugimenduko hainbat eragilerekin batu behar gara ere. Jasotzen ditugun erantzunen arabera erabakiko ditugu hurrengo urratsak. Edo proposamena izoztu, gure artean argi baitugu ez dugula erre nahi, erretzekotan ezin duzulako berrartu hainbat eta hainbat urtetan.

■ **Zuekin hitz eginda, sindikatuekin egon ostean etorri zitzaidan sentazio kontraesankorbera datorkit, armagintzarako eta oro har lan munduko moldaketaz: batetik, zailtasun praktikoak, ekonomikoak, indar harremanari dagozkionak, mentalitate militaristaren hazkundea... beraz ezinezkoa da; bestetik, mundu mailako gerra arriskua, klima kaosa, energia krisia, faxismoa hazkundera... ezinbestekoa da, 'zentzu komunekoa', ez jada ikuspegi iraultzaile batetik, espeziearen biziraupen termino hutsean baizik.**

**CORREAL:** [Barreak] Hori da, bai. Utopikoa? Zaila? Akaso bai. Baina bestela zer?

**ESCALANTE:** Erresistentzia eta Errebeldia Topaketetan zapatismoak adierazi berri duen bezala, bidegurutzean gaude: dagoeneko egindakoa errepikatu, nahiz eta makillatua izan, jakinik ez duela funtzionatzen eta amildegira eramango gaituela; edo ausartu eta arriskatu, arrakasta bermerik gabe, bestela lortuko ez dugun etorkizuna sortzeko modu gisa.

**Zerrenda honetan**, 2016az geroztik armagintza programaren batean parte hartu duten enpresak sartu ditu Gasteizkoak taldeak, edo militarrentzako produktu espezifikokoak garatu dituztenak (ibilgailuak, pinturak, bateriak...). Hego Euskal Herrian sortuak, edo Hego Euskal Herrian ordezkariak duten talde eta partzuergoen filialak dira. 206 dira orotara, horietatik 187 enpresak, 11 zentro teknologikoak edo ikerketakoak, bost unibertsitateak eta hiru finantza erakundeak. Hainbat enpresa dituzten taldeak direnean, taldea zein armagintzarekin harremana duten enpresak sartu ditu zerrendan, baina ez gainerakoak. Babes, segurtasun eta kontrolaren azpisektorea ez du sartu “azterketa propioa” eskatzen duela irizitza, baina bai “mugak militarizatzeko prozesuarekin” ze-

rikusia izan dezaketenak. Horregatik, armagintzaren esparrua opakua izaten jarraitzen duelako, eta Gasteizkoak taldearen ikerketa gaitasuna ezinbestean mugatua delako, talde antimilitarista ziur da egiazki armagintzari loturiko enpresak zerrendakoak baino “nabarmen gehiago” direla. Zerrendatik kanpo utzi ditu Espainiako Defentsa Ministerioko enpresa bezero ugari, horien ekoizpena (elikadura, jantziak, instalazioen mantentze lanak eta ekipamendua edo osasuna, nagusiki) militar gisa ez hartzea erabakita. Enpresez gain, zerrendan daude ere armagintza sektorerako ikerketak egiten dituzten ikerketa-zentroak (publikoak edo pribatuak), armagintza “finantzatu duten” euskal erakundeak, eta “lankidetzan” aritu diren hezkuntza zentro publiko edo pribatuak.

## Araba

- Abgam (Grupo Segura Technologies)
- Acceleration Robotics
- Aciturri Aerostructures
- Aeg power solutions ibérica
- Aernnova Aerospace
- Aeroblade
- Alestis Aerospace
- Amopack
- Applus+
- Aratz (Talleres Aratz)
- Arcelormittal
- España
- Arghos
- AVS (Added Value Solutions)
- Beretta Benelli Iberica
- Burdinberri
- Burulan
- Capgemini
- Castmetal
- Coeca (Compañía elaboradora de Caucho)
- CTA (Centro de Tecnologías Aeronáuticas)
- Cybosense
- EGA Master
- Fibertecnic
- Gamarra
- Hexagon Metrology
- IDEC Aero
- Iribarri Telecontrol
- Kernova
- Lagun Machine Tools
- Liven Battery Ibérica
- LTK Industrial
- Mercedes Benz
- Metraltec
- Michelin
- Mizar Additive Manufacturing
- Nuter
- Optimus 3D
- Prevent Euroseland
- Securitas Seguridad
- Segula Technologies
- Sidenor
- Sofiam Ibérica
- Sopra Steria Euskadi
- Téciman
- Tecnalia
- Tecnasa (Tecnologías Aeroespaciales)
- Trigo Global Quality Solutions
- Tubacex Group
- Zayer
- ZF Services

## Bizkaia

- Aalbert Surface Technologies TEY
- Abgam (Grupo Segura Technologies)
- Accenture
- Aeromec
- Aerospace Engineerign Group
- Aitor Knives (Cuchillería del Norte)
- Akkodis
- Alconza
- Alten Soluciones, Productos, Auditoría e Ingeniería
- Applus+
- Arcelormittal España
- Ardesa
- Arghos
- Astilleros Murueta
- Astorkia Aero Components
- Atos
- Auziker
- Axians
- Batz Aerospace
- BBVA (Banco Bilbao Vizcaya Argentaria)
- CFAA (Centro de Fabricación Aeronáutica Avanzada)
- CMZ
- Cobra Instalaciones y Servicios Zona Norte
- CT Ingenieros Aeronáuticos de Automoción e Industriales
- CTA (Centro de Tecnologías Aeronáuticas)
- Cyber Human Systems
- Deustuko Unibertsitatea
- Diviprec
- Drone by Drone
- DYFA (Ingeniería para el Diseño y Fabricación Integrada)
- Ecia Xemein
- Electrohilo
- Ermec
- Eulen
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskalforging
- EY building a better working world
- Faro Spain
- Ferrolloiu
- Frizonia
- Gaditana de Chorro y Limpieza
- Gamesa Electric
- Ghenova Ingeniería

- Gogo Mobility Robots
- Goimek
- Hegan (Basque Aerospace Cluster)
- Imedusa Precision Machining
- INDASA (Industrial de Acabados)
- Indra
- Industrias Metalúrgicas Galindo
- Inetum España
- Ingeteam
- Ingloba Seguridad
- ITP Aero (Industria de Turbo Propulsores)
- Iturri
- Kuehne & Nagel
- Kutxabank
- MAXAM S.A. Fábrica de Galdakao
- Meigo Innovación
- Mesima Bilbao
- Novatronic Sistemas
- Oesía Networks
- Oliver Design
- PCB (Precisión Casting Bilbao)
- Pine Instalaciones y Montajes
- Pinturas Hempel
- Quest Global Engineering
- Redislogar
- Relyum
- SATEC (Sistemas Avanzados de Tecnología)
- Satlantis Microsats
- Securitas Seguridad
- Segula Technologies
- Sener Aeroespacial
- SIA (Sistemas Informáticos Abiertos)
- Sidenor
- Sisteplant
- Smarmec
- SoC-e.com (System-on-Chip-Engineerin)
- Suprasys
- Supsonik
- Techno Pro Hispania
- Téciman

- Tecnalia
- Telefónica de España
- Dirección Territorial Norte
- TRC
- Tubacex Group
- Velatia
- Virtualware
- Wartsila Ibérica
- Wec

## Gipuzkoa

- ABC Compresors
- Abgam (Grupo Segura Technologies)
- Aibe (Talleres Aibe)
- Applus+
- Arcelormittal
- Asaey
- Aubert & Duval
- AVS (Added Value Solutions)
- Ayesa (Donostia)
- Bost Machine
- CAF (Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles)
- Capgemini
- CEIT-IK4
- Centro de Excelencia PID
- Cetest
- CFM
- Cidecell
- CIDETEC (Centro de Tecnologías Electroquímicas)
- CounterCraft
- Danobatgroup
- Denatek
- Doilan
- Egile Mechanics
- EIPC (Eibar Precision Casting)
- Ermec
- Eulen
- Euskalforging
- EY building a better working world
- Fatco
- Gamor
- Geminis
- Geminys
- Gogo Mobility Robots
- Goimek
- Graphenea
- Grupo Unceta
- Gurutzpe
- Haskel
- Hdiv Security
- Ideko
- Idistek
- Indra
- Inetum España
- Ingeteam
- Ingloba Seguridad
- Iraundi
- Izadi
- Juaristi Boring & Milling Machines
- Khegal
- Korta
- Kuehne & Nagel
- Lagun Machine Tools
- Lazpiur (Construcciones Mecánicas José Lazpiur)
- Lortek
- Mecanizados Kanter
- Michelin
- Mondragon Unibertsitatea
- Multiverse Computing
- Oerlikon Balzers
- Papi Transitos
- Prosix Engineering
- S2 Grupo de Innovación en Procesos Organizativos
- S21sec
- Sapa Operaciones
- Savvy Data Systems
- Securitas Seguridad
- Sidenor
- Siemens
- Sisfle
- Spanset
- Tecnalia
- Tecomar
- Tekniker
- Tratamientos térmicos TTT
- Trust Eibarrés
- Ulma
- Xubi Group

## Nafarroa

- Abgam (Grupo Segura Technologies)
- Akkodis
- Alten Soluciones, Productos, Auditoria e Ingeniería
- Applus+
- Arcelormittal
- Arghos
- Caja Rural de Navarra
- Departamento de Integración en Red (IRE) del CENER
- Eos Aerospace
- Ermec
- Eulen
- EY building a better working world
- Fuvex
- Helix North
- Imeron
- Inetum España
- Ingloba Seguridad
- Loxin
- Microlan Aerospace
- MTorres, Diseños Industriales
- Nafarroako Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Orbital Sistemas Aeroespaciales
- S21sec
- Securitas Seguridad
- Segula Technologies
- Tafco Metawireless
- Talleres Cicre
- Tecnan
- Tiruña (Talleres Iruña)
- Tracasa Instrumental
- Trigo Global Quality Solutions
- Veridas
- Zabala Innovation Consulting



# Moldaketa, zail bezain ezinbesteko

ELA · LAB · STEILAS · ESK

Lehen aldia da Hego Euskal Herriko euskal gehiengo sindikalak armagintza industriaren moldaketaz taldean eta modu publikoan hitz egiten duena. Aurreko hilabeteotan mugimendu antimilitaristak bilera bana egin du lau sindikatuokin, produkzio militarra “sozialki onuragarria” den produkzio batengatik ordezkatzeko duen proposamena aurkeztu eta elkarrekin eztabaidatzeko. Erronka erraldoia dela argi geratu da solasaldian, baina heltzeko prest azaldu dira. Bi mutur marraztu dituzte: batetik, hitzetatik ekintzetara jauzi egiteko zailtasunak ikaragarriak dira; bestetik, ordea, ezinbestekoa

da, munduan gerra ekiditeko bezain beste klima larrialdiari edo energia krisiari aurre egiteko. Bi muturren artean, bidea urratzen hasteko proposamen eta ideiak ere mahai-gaineratu dituzte.

ELA sindikatuko Ekintza Sozialeko Ioritz Igleziasekin, LABeko Ekintza Sozialeko Arabako arduradun Miriam Díaz de Tuestarekin eta ESK-ko Koordinadorako kide Jabier Sáenzekin bildu gara Gasteizen. Agenda arazoak tarteko Steilaseko Jendarte Mugimenduetako arduradun nazional Marije Etxebarriarekin aparte egin dugu hitzordua, eta hezkuntza eremuan zentratu gara berarekin.

**■ NATO gerra iragartzen European, estatuen gerrarako aurrekontuak hazten eta hazten, Euskal Herriko armagintza aparretan... Zer irakurketa egiten duzue?**

**IORITZ IGLESIAS:** Norabide bat markatzen ari direla ikusten da, eta horri alternatiba bat aurkezteko zailtasunak ditugula. Aurrekontu militaristak onartzen dira herrialde guztietan, ezkerreko alderdien oniritziarekin... Europar Batasunean eta munduan nagusitzen ari den norabideak sekulako beldurra ematen du.

**JABIER SÁENZ:** Diskurtso belizista orokortu da, European zein Euskal Herrian. Guk pixka bat ikertu dugu eta antzeman dugu militaristek salatzen dutena: orain urte batzuek lotsaz hartzen zuten parte armagintzan, egun ez. Diru publikoa armagintzara doanean, eskubide sozialak murrizten dira. Eta genero arrakala handitzea dakar ere, gerra eta indarkeria giroa emakumeen aurka doalako.

**MIRIAM DÍAZ DE TUESTA:** Gure us-tezko etsaiek seinatzen dizkigute,

beldurra sartzen digute haiekin, eta ondoren gastu militarra areagotu behar dugula azaltzen digute. Gerra, militarismoa, eta autoritarismoa areagotzea langile klasearen eta euskal jendartearen aurka doa, kalteuena langile klasea da. Esan duzun moduan gastu militarra handitzeak gastu soziala murriztea dakar, are mingarriagoa gastu militarren hainbat partida gastu sozial gisa mozorrotzea, edo armagintzari kenkari fiskalak oparitzea. Erakundeak presionatu behar ditugu hori ekidi-



ELA sindikatuko Ekintza Sozialeko Ioritz Iglesias, ESK-ko Koordinadorako kide Jabier Sáenz eta LABeko Ekintza Sozialeko Arabako arduradun Miriam Díaz de Tuesta.

teko, eta behintzat beren legeak errespetatu ditzaten. Esaterako, Gasteizko Legebiltzarraren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunaren 14/2007 Euskal Legeak dio: “Eusko Jaur-larritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpena, merkaturatzea edo finantziarioa egiten duten pertsona fisiko zein juridikoekin”.

**■ Mugimendu antimilitaristak armagintza industriaren “moldaketa eraldatzailerako” duen proposamena aurkeztu dizue. Nola baloratzen duzue?**

**DÍAZ DE TUESTA:** Proposamenarekin sintonian sentitzen gara, eta uste dugu garrantzitsua dela salaketatik moldaketaren aldeko urratsak ematera pasatzea. Moldaketarena ez da antimilitarismoari soilik dagokion eginkizuna, hor egon behar dute ere sindikalismoa, feminismoa, ekologismoa... bizitzak erdigunean jartzeko borrokan ari garen eragile guztiak. Prozesu horretan kontuan izan behar ditugu egun bizi ditugun hainbat krisi, eta aitoritu armagintzaren moldaketak trantsizio ekosozial orokorraren barnean egingo lukeen ekarpen garrantzitsua. Bata bestearen barnean ikusten baitugu. Azaldu digute sindikatuarekin landu nahi dutela proposamena, denon artean eztabaidatzeko nondik eta nola hasi gaitezkeen pausuak ematen, armagintzarik gabeko Euskal Herria helburu. Proposamena bera ez dugu sakondu oraindik, baina elkarlan espazio horretan egongo gara.

**IGLESIAS:** Gaiak lehenago ere hitz egin dugu sindikatuan, eta bota diguten erronka ez da makala. Momentuz langileek ez dute industriaren plangintzan parte hartzen, beren lan indarra saltzen dute ahal duten moduan eta pre-

zioan. Guk borrokatuko ditugu lanpostuak eta lan hitzarmenak, ez du balio [Jokin] Aperribay milioidun egiten den bitartean bere langileek lan baldintza txarrak izatea. Baina horrek ez du esan nahi trantsizio hau egin behar ez denik, kontrakoa, egin beharra dago langile klasea delako gerra pairatzen duena, klase zein internazionalismo ikuspegitik. Industria eraldatu behar da, sindikatua hor egongo da, baina botere publikoak eta pulstu politikoak asko dute esateko. Hasieran gaude.

**SÁENZ:** Baina langileek ahotsa dugu, gure lan indarra saltzen dugunean ere erabakiak hartzen ditugu, eroso edo deserosoa izan. Baldintza materialak defendatu behar ditugu, jakina, baina moldaketa egiteko enpleguaren xantaitik askatu behar gara: ditugun lanpostu batzuk nazkagarriak dira, baina bizi ahal izateko soldatapeko lana behar dugu. Hori gainditu ezean oso zaila da langileek aldatetaren alde ekitea. Gainera, armagintza hazkunderan dagoen sektorea da, aldaketa zailtzen duena; krisialdian balego aukera gehiago izango genituzke. Trantsizioa armagintzan zailagoa da beste sektore batzuetan baino, autogintzan baino, esaterako.

ESKn esperientzia bat izan genuen 1997an. Expalen (Explosivos Alaveses) gehiengoa genuen, eta saiatu ginen Herrialde Katalanetako Centre Delàs d'Estudis per la Pau eragile antimilitaristarekin elkarlanean plan industrial bat egiten enpresari beste jarduera bat emateko. CCOO eta UGT aurka agertu ziren, eta enpresa Burgosera eraman zuten jabeek.

**IGLESIAS:** Xantaiarena egia da. Planteatu behar da zerbait erreala, jendeak ez du piztinara jausi egiten urik dagoen edo ez jakin gabe, eta askotan langile klaseari hori eskatzen zaio, baina bertan bazaude oso zaila da. Beldurrari aurre egiteko



DOSPORDOS



**“ARMAGINTZAREN  
MOLDAKETAK EKARPEN  
GARRANTZITSUA EGINGO  
LIOKE TRANTSIZIO  
EKOSOZIAL OROKORRARI”**

**DÍAZ DE TUESTA · LAB**

masa planteamendu bat egin behar da, erradikala, pragmatikoa, eta jendearen babesa duena. Eta hori oso zaila da. Gainera, langile klasea oso urduri jartzen da birmoldaketa hitza entzutean.

**Aipatu dituzuen muga horiek denak aintzat hartuta ere, badago urrats zehatzak ematen hasterik? Horrela bada, zeintzuk?**

**SÁENZ:** Oso ondo azaldu duzu bizi baldintzak garrantzitsuak direla langileak moldaketara batu ahal izateko, Ioritz. Horregatik, nondik hasi?: bizi baldintzak bermatetik. Horretarako, Baldintzarik Gabeko

Oinarrizko Errenta defendatzen dugu, langileei erabakitzeko ahalmena emango liokeelako. Gutxieneko batzuk bermatuta izanik beldur eta urduritasun horiek, logikoak direnak, eraldatuko liratekeela uste dugu, lortuko genukeela borroka horretarako indar gehiago. Armagintzaz gain beste industria askotarako ere, kutsatzaileak...

**IGLESIAS:** Lan hitzarmenean kontzientzia eragozpenerako aukera sartzea askotan aipatzen da, inoiz sartu da hasieran aldarrikapen gisa, baina oso zaila da beste aldearekin adostu behar duzulako, eta ez du interesik. Pedagogia egitea ezinbestekoa da.

**DÍAZ DE TUESTA:** Egia da erresistentziak daudela langileen aldetik, baina ez militarismoaren alde daudelako, baizik eta enpleguan izan dezakeen inpaktuagatik. Lehenbiziko urratsa eztabaida soziala piztea izan behar da, enpresetan eta kalean. Esperientzia praktikoak eta borroka eredugarriak ezagutzera emanez, pistolak egiten dituen lan-tegi batek produkzioa aldatzea posible dela sinetsi dezagun, armagintzarik gabeko Euskal Herria posible dela. Guztiok dugun erantzukizuna onartuta, ez baita soilik armagin-



tzaren industria, gure bizimodua Hegoaldearen espolioazioan oinarrituta dago.

Uste dugu aurretik landuz gero gauza batzuk lortu daitezkeela. Lan hitzarmenean kontzientzia eragoz-penerako eskubidea sartzea, adibidez, zuk aipatu duzuna Ioritz, hau da, produkzio zibila eta militarra duten enpresetan langileak eskubidea izatea armagintzaren lerroan lan ez egiteko, kalterik jaso gabe. Lan hitzarmenean kontzientzia klausula ere sartu liteke: egun produkzio zibila soilik duen enpresa batek produkzio militarri ekitekotan langileak kontratua mozteko eskubidea izatea, kaleratze bidegabe baten ordainsariarekin. Edo ziurtagiri bat, Bai Euskarari ziurtagiriaren antzekoa baina adierazteko enpresa horrek ez duela ekoizpen militarrekin loturarik, eta ez duela izango etorkizunean. Horiiek urteetan mugimendu antimilitaristatik jaso ditugun proposamenak dira, gure egiten ditugunak, zailtasun guztiekin. Hurrengo hau LABen proposamena da: Bidezko Trantsiziorako Batzordeen sorrera. Ez soilik armagintzan sortzea, baizik eta desiragarri ez diren ekoizpen sektoreetan oro har. Armagintzaren kasuan, moldaketarako aukerak aztertuko lituzkete batzordeek, eta behin azterketak eginda, proposamenak egingo lituzkete. Bertako langileak dira ezagutza handiena dutenak, lankideak, makinaria eta abar ezagutzen dituztenak, beraien ekarpena funtsezkoa da, prozesuaren protagonistak izan behar dute, baina parte hartu beharko lukete ere unibertitate publikoak, Delás zentroak edo antzekoak...

Langileen mugak eta beldurrak aipatu dituzue, baina baita haien parte hartzea ezinbestekoa dela ere. Armagintza arloko lantegietako zuen afiliatuek zer iritzi dute?

**IGLESIAS:** Lehen aipatutakoa, ar-



**“BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA DEFENDATZEN DUGU, LANGILEEK ENPLEGUAREN XANTAIATIK ASKATZEKO AHALMENA IZATEKO”**

**JABIER SÁENZ · ESK**

magintzako langileei ura duen pizina eskaintzen badiezu moldaketa egiteko, botako dira

**Baina esaten baduzue protagonistak izan behar dutela, pizina urez betetzeko prozesuan ere parte hartu beharko lukete, ezta? Horrek nolabaiteko jarrera militante bat eskatuko lieke. Horretarako aukerak daude?**

**IGLESIAS:** Guk Trantsizio ekosozialaren inguruan egin ditugu formakuntzak, industria langileekin, eta jendeak ulertu eta ikusten du. Baina ez dugu Lucas planik [ikusi 7. orria]. Afiliatuak hor egongo litrateke, langileak protagonista izan behar dira, baina fokuak askoz zabalagoa izan behar du, eta ikusten bada zabaltasun horretan indarra dagoela jendeak ez digu ezetzik esango.

Lantegien plan industrialak langileek zehazteaz ari gara hizketan, enpresak kooperatibizatzeaz edo produkzio bitartekoen jabetza langileena izateaz. Ados gaude, baina ez gaude hortik gertu. Kapitalismoan bizi gara eta langile gehienek beren lanpostuetan sistema mantentzeko egiten dute lan, ez bakarrik armagintzakoak. Hitz egiten hasteko bai, baina Aernnova kooperatibizatu eta plan industrialak eraldatzeko, ba... Oso-oso hastapenetan gaude.

**SÁENZ:** Langileak dira protagonistak. Zentzu horretan, esperientziak garatzen saiatu behar gara. Zaila dela? Oso. Ados nago zurekin Ioritz, egun langile gehienek ez dute kristoren lana egin nahi alternatiba bat planteatzeko. Baina batzuek bai.

**IGLESIAS:** Pertsona batzuk modu isolatuan bai, ordezkari batzuk bai... baina hemen ez dira *batzuk* behar, masa baizik.

**SÁENZ:** Bai, eta gehienak ez daude hor, lan egin behar dugu. Oso interesgarria iruditu zait zuk planteatu duzuna, Miriam, batzordeak eratzearena eztabaida sustatu eta alternatibak aurkezteko. Niretzat gaur hemen elkarrekin egotea bada pausu bat, eta gehiago ere hitz egin behar dugu.

**DÍAZ DE TUESTA:** Beste edozein urrats eman aurretik pedagogia lan asko egin behar dugu, bai. Sindikatuon artean funtsezko adostasunak lortzea eta hortik harago aliantza soziosindikalak jorratzea oso garrantzitsua da, denak batera joateko. Adibidez, Mecaner enpresaren prozesutik, oso ezberdina izan arren, irakasgai asko atera ditzakegu, bereziki aholkularitza prozesutik eta pedagogia mailan.

**Mecaner aipatu duzu esperientzia interesgarri gisa. Langileen jarreraren eremuan, CAFekoa dago. 2019an langileek enpresari eskatu zioten ez aurkezteko Israelek Palestinako lur okupatuetan eraiki nahi zuen tranbiarako lanen lehiaketara.**

**Alegia, enplegu horri uko egitea.**

**IGLESIAS:** CAFeko enpresa batzordea erreferentziazkoa da Euskal Herrian. Oso positiboa da, jakina, eta oso harro gaude egin izanaz, baina kontrapuntua jartzearen, emaitza da enpresak erabaki duela egitea. Hor ikusten da ze muga dauden, zenbat lan dugun egiteko.

**DÍAZ DE TUESTA:** Argi dago, bai-

# Hezkuntzan, armagintzarekin moztea helburu

MARIJE ETXEBARRIA EZPELETA

Steilaseko Jendarte Mugimenduetako arduradun nazionala

**E**LA, LAB eta ESK sindikatuekin egin moduan, Steilasekin ere bildu dira antimilitaristak beren moldaketa proposamena partekatzeko. Proposamenaren balorazio positiboa egin du Etxebarriak, “eztabaidatzen hasi berri gara, oraindik ez dugu sakonki aztertu”. Hitz are baikorragoekin baloratu du proposamenaren oinarrian dagoen liburua: “Zoru bat eman digu, eztabaidatzeko, estrategiak garatzeko, hezkuntza komunitatean urratsak emateko”.

Azken hamarkadetan militarismoa hazkundera dagoela salatu du Etxebarriak, Europa “nekropolitika” egiten ari dela mugetatik hasita, eta “armagintza-gerragintza” sektorearentzako hezkuntza “estrategikoa” dela. “Ikasleria eta etorkizuneko langileria armagintzara hurbiltzeko, ideologia militarista garatzeko edo behar dituzten ikerlariak eta ikerlerroak garatzeko”. Mugimendu bikoitza gertatzen ari da: batetik, armagintza industriak eta militarrek gero eta presentzia handiago dute hezkuntzan, inbertsio ekonomikoak tartean; bestetik, aurrekontuetan gastu militarra areagotu ahala, hezkuntzakoa murrizten da.

Armagintzaren “moldaketa eraldatzailerako” antimilitaristek egin duten proposamena industriara zuzenduta dago nagusiki, zer egin daiteke norabide horretan hezkuntzaren eremuan? Azken helburua argi du Etxebarriak:

“Armagintzarekin moztu”. Lortzen helburu zaila, aitortu duenez. Arazo nagusietako bat informazio eta gardentasun falta da. Enpresa ugari dituzte hitzarmenak edo akordioak hezkuntza zentroekin, nagusiki unibertsitateekin eta Lanbide Heziketan baina baita DBHn ere. Hala ere, ez dago horien zerrenda ofizialik, eta, batez ere, zaila da armagintzarekin lotura noiz dagoen eta noiz ez identifikatzea, enpresa ia guztiek baitute produkzio militarra eta zibila aldi berean: “Teknologiaren erabilera bikoitza ematen da, eta I+G+B (ikerketa, garapena eta berrikuntza) euritakopean denetarik sartzen da”.

Informazio faltari konponbidea jartzeko, hain zuzen ere, Steilaseko Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatu die hezkuntza zentroekin harremana duten enpresen zerrenda. Momentuz behintzat ez dute erantzunik jaso. “Informazioa behar dugu” errepikatu du Etxebarriak, eta berriz ere antimilitaristen liburua goraiatu

du zentzu horretan. “Eskura dugu, jada ez du balio ‘ez dakigu’ esatea”. Datu gehiago eta zehatzagoak behar dira, hala ere.

Gasteizkoak taldearen ikerketak argi azaleratzen baitu armagintza industriak eta Espainiako Defentsa Ministerioak hezkuntzan duten pisu handia, hazkundera dagoena. Lagin bat: Sortu berria den EUNEIZ unibertsitate pribatua salbu, Hego Euskal Herriko publiko zein pribatu guztiek dituzte loturak sektorearekin, EHU eta NUP publikoen kasuan, oso estuak; enpresek (adibidez nagusienetakoak diren ITP, Sener, Aernnova eta Sapa) akordioak dituzte unibertsitate zein Lanbide Heziketako zentroekin ikasleek praktikak haien lantegietan egiteko edo ikerketa eta ikasketa gaiak beren beharretara egokitzeko; enpresek bekak ematen dituzte, eta beren izena duten katedrak ere bai hainbat unibertsitatetan.

EHUko errektoretza talde berriak eremu honetan lan ona egingo



2020an EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolak jardunaldiak antolatu zituen. EHU moztu kolaborazioa plataformak armagintza enpresen parte hartzea salatu zuen.

duenaren “esperantza” du Etxebarriak, “pentsamolde demokratikoa” dute, eta gauzak modu parte hartzailean eta behetik gora egiten dituzte”.

### “EZ GARA HUTSETIK HASTEN”

Ezkortasunari aurre egin nahian, hezkuntzatik armagintzaren eta militarismoaren aurka aurretik ere “lan handia” egin dela azpimarratu nahi izan du Steilaseko kideak. Ez soilik armagintzarekin mozteko, baita balore militaristak alboratzeko ere, elkar elikatzen duten bi ildo baitira. Ekimenen zerrenda luzea ahoskatu du Etxebarriak, horien artean: 2010ean ELA, LAB, ESK, Steilas Hiru, EHNE, LSB, CCOO, UGT, CGT eta CNT sindikatuek Israelen aurkako BDZ kanpainarekin bat egin zutenekoa; hainbat sindikatu eta irakasleek sustatutako EHU moztu kolaborazioa militarismoarekin plataformaren lana; Gabonetan jostailu sexistak eta belizistak ekiditeko kanpainak; edo Steilasen Idazkaritza Feministatik antolatutako formazioak *Emakumea eta gerra* goiburuekin.

Industriaren eremurako ELA, LAB eta ESK sindikatuek adierazi moduan, hezkuntzan ere lehenbiziko zeregina eztabaida sustatzea da, Etxebarriaren ustean. “Eztabaida eta elkarrizketa eman behar dugu hezkuntza komunitatean, adostasunak lortu eta urratsak emateko”.

na demostratzen du ere posiblea dela, hilabete batzuk lehenago galdetu baligute, ziurrenik denek esango genukeen ez zela aurrera aterako. Horrelako ekimenek balio dute ere eztabaida zabalteko, politizatzeke, gaiak hitz egitea ekarri zuen.

**SÁENZ:** Mecaner eta CAF adibide oso ezberdinak dira. Armagintzaren moldaketari begira CAF interesgarriagoa iruditzen zait. Oso enpresa garrantzitsua da, lan karga handia duena, irabazi handiak, hazkunde fasean dago...; Mecaner hiltzeko zorian zegoen multinazional batek erabaki zuelako itxia, eta halaxe egin zuen. CAFen, langile komiteak esan zuen, Jerusalemgo tranbia eginda lanpostu gehiago sortuko direla? Bada, horrela ez. Hori ez da batere erraza.

Zer gertatzen da? Sindikalgin-tzan gure mugak ditugula. Baina sindikalgin-tza ez da soilik lantegietan egiten, aliantza soziosindikalak ezinbestekoak dira, bai. Ez da nahikoa Aernnovako 20 langilerekin edo enpresa batzordearekin, baina 20 horiek mugitzen badira eta lantegitik kanpo mugimendu indartsu bat badago horri sustengua emateko, irabazi

daiteke. CAFek egingo du tranbia, bai, baina asko sufritu dute egiteko, eta bere izena markatuta geratu da.

Mecanerren, pozik gaude LA-Bekin batera aliantzak sortzeko egin dugun lanarekin: mugimendu ekologistarekin eta beste batzuekin, zonaldeko eragileekin... Itxi da, egia da, baina sortu dena ingurunearen etorkizunerako baliotsua da, kontzientzia batzuk eraldatu dira eta konpromiso politiko gutxi batzuk lortu dira.

■ **CAFen esperientzian beste elementu interesgarri bat ere bada. CAFeko langileek lantegian urrats hura eman zutenean, herri mugimenduek kalean CAF ez igo apartheidaren trenera kanpaina abiatu zuten: aliantza eman zen.**

**IGLESIAS:** Aipatu dituzuen aliantzak behar ditugu, jakina. Gure papera hor, antimilitaristei adierazi genien moduan, izango da gogoratzea langileak ez direla etsaiak, klase ikuspegia behar dela. Gauza da nola egin, eta garatzen hasten garenean izango ditugu eztabaidak eta tentsioak, baina argi dago antimilitaris-



DOSPORDOS



moa klase borrokaren muinteko bat dela.

**DÍAZ DE TUESTA:** Moldaketa ez da egun batetik bestera egingo, ez eta hogeitangileren artean. Prozesu bat izango da, ziurrenik fase ezberdinak izango dituen, eta korapilatsua. Landu behar dugun ideia da moldaketak ez duela esan nahi enpresa ixtea edo lanpostuak galtzea; kontrara, lan-baldintza hobekiak ere sor daitezke produkzio mota eta modua aldatuta: produkzio berrira egokitzeko langileentzako formakuntza ziurtatu beharko genuke, lanaldia murriztu –enplegu guztietan, ez soilik armagintzan–, erakundeak interpelatu lanpostuak bermatzeari begira...

Azkenik, diskurtso alternatibo bat behar dugu. Armagintza indartu behar dugula saldu digute, segurtasunagatik eta autodefentsarako, orain enplegua eta aberastasuna sortzeko sektorea dela ere esaten digute. Horri buelta emango dion diskurtso sendoa behar dugu, industria militarra enplegutik eta aberastasunetik deslotzeko.

**IGLESIAS:** Hori da lehen nioena, birmoldaketa hitza entzutean langile klasea dardarka hasten dela.

■ **Marko mental horrekin apurtu nahian planteatu dute antimilitaristek 'moldaketa' erabiltzea, 'moldaketa eraldatzailea', eta ez 'birmoldaketa'. Balio dezake?**

**IGLESIAS:** baina oso sustraituta dago, badakigu zer pasatu den eta nork egin dituen birmoldaketak, moldaketa deituta ere. Hor lan pedagogiko erraldoia egin behar da, esateko hobe beharrez dela, lanposturik eta baldintza materialak galdu gabe...

**SÁENZ:** Trantsizio ekosoziala burutu behar dugu, eta ez dugu esaten birmoldaketa baizik eta trantsizioa [hiruen barreak], hitzak oso garrantzitsuak dira, bai. Lanpostuak defendatzen ditugu, barrikada ho-



2019an CAFeko enpresa batzordeak zuzendaritzari eskatu zion ez aurkezteko Israelek Palestinako lur okupatueta eraike nahi zuen trenaren obren lehiaketara, horrek lanpostuak ekarriko bazituen ere. Herri mugimenduek erabakia txalotu eta babestu zuten kalean.

rretan gaude, baina baita ezagutzen ditugun enplegu moten aurka ere. Osasuna, erretiroa, hezkuntza... eskubide sozialak enplegua izatera baldintzatuta egotearekin apur-

tu behar dugu, bestela hau guztia planteatzean beti topatuko gara arazo handiekin langile klasearen aurrean, alternatibarik ez baduzu daukazuari heltzen diozu. Kristo-

ren behar sozialak daude, enplegua sortzea eskatzen dutenak: zaintza arloan, osasungintzan, hezkuntzan, ikerketan... arlo askotan. Oraindik ez dugu alternatibarik, baina garatu behar dugu. Bestela, langile klaseak faxismora joko du: sindikatuak, herri mugimenduak, ezkerreko alderdiak, nire lanpostuen aurka zaudete eta kalean geratuko naiz? Nork hartuko du bandera hori? Faxismoak.

**IGLESIAS:** Defentsiban bizi gara, kapitalismoarekin amaitu nahi dugu baina lan hitzarmen bat sinatzen dugun bakoitzean erabakitzen duguna da zein baldintzatan galtzen dugun, ahalik eta hoberenak, noski. Alternatiba, hor dago gakoa, sinesgarria izan behar du jendea eskuin muturrera ez joateko.

■ **Asko azpimarratzen ari zarete prozesuak izan behar duen izaera kolektiboa, edo masa dimentsioa. Jarrera pertsonalek ere egiten dute ekarpena? Ina Robles suhiltzailearena, lanpostua utzi duten edo lan zehatz batzuk egiteari uko egin dioten langileak...**

**IGLESIAS:** Jendeak horri buruz hitz egitea beti izango da ona, baina gu era kolektiboan antolatzen gara, eta ez ditugu bultzatuko langileak indibidualki lantegiaren aurka egitera. Egia da horrelakoek balio dutela ere esateko, "horrela sentitzen bazara, antolatu".

**SÁENZ:** Jarrera etiko indibidualak garrantzitsuak dira, borroka kolektiborako ere balio dute, hausnartzeko, "nik berdina pentsatzen dut, eta ez dut inoiz adierazi edo pausurik eman...".

**DÍAZ DE TUESTA:** Garrantzitsuak dira ez badira ezkutuan edo isilean geratzen, horregatik kolektibizatu eta publiko egiteko beharra, ez gaudela bakarrik sentitu dezagun, eredu gisa eragin diezaguten. Baldin bada-kigu norbaitek jada egin duela, errazagoa da beste norbaitek ere egitea.



## “ARMAGINTZAKO LANGILEEI URA DUEN PISZINA ESKAINTZEN BADIEZU MOLDAKETA EGITEKO, BOTAKO DIRA”

**IORITZ IGLESIAS · ELA**

■ **Hasteko modu bat izan al daiteke baldintza egokienak dituen lantegi bat identifikatu (langileak prest eta indar harreman ona enpresa barruan, moldaketa teknikoki egingarri, ingurunean prozesua bultzatuko duten herri eragileak eta erakundeak...) eta hor esperientzia pilotu bat bultzatzea?**

**DÍAZ DE TUESTA:** Hori litzateke zentzuzkoena, praktikara pasatzean aukera gehien duzun tokia hautatzea. Baina, hala ere, aurre-lanketa oso handia beharko litzateke, ez badituzu emaitza onak ziurtatzen kalterako izan daitekeelako.

**IGLESIAS:** CAF datorkit burura berriz ere: armagintzari loturiko produkzioa produkzio osoaren zati txikia da; lan karga handia du; lan baldintza dezenteak; 2019an enpresa batzordeak erakutsitako jarrera dago. Hala eta guztiz ere, praktikan nola egin? Gakoa bagenu ariko ginatke jada egiten. Hitz egiten ari gara, aukera sortzen bada egingo dugu. Kontua da ere enpresa batean ezin dela lanketa hasi gauzak okertzen hasten zaizkion unean, lehenago egin behar da.

■ **Antimilitaristek liburuan diote lanketa horretan "motor nagusietako bat, ez bada nagusia", Euskal Herriko**

**gehiengo sindikala izan beharko lukeela. Ados zaudete?**

**DÍAZ DE TUESTA:** Enpresa barnean bai, guk dugulako ordezkari-tza, eragiteko eta proposamenak egiteko gaitasuna. Baina kalean denon arteko lana izan behar du.

**IGLESIAS:** Denok izan behar dugu gure papera, dena den ia zeroan gaude, hastapen-hastapenean, joango gara ikusten nola egin hobekien.

**SÁENZ:** Gizarte eragileen garrantzia zentrala da, eta askotan, agintea sindikatuok hartzen dugunean, gizarte eragileak bigarren lerro batean geratzen dira, guk baliabide gehiago ditugulako eta nahigabe ere askotan zanpatzen dugulako dena. Elkarlanean aritu behar dugu, motorra denon artean eraiki. Bestela, gaur hemen gaude giro onean gure artean, baina gero gatazka batean elkarren aurka hasi gaitzke, egunerokotasunean arazoak ditugulako, bakoitzak uste dugulako gurea dela alternatibarik one-na. Hori ekiditeko, eragile sozialek lan garrantzitsua egiten dute, "utzi zuen arteko kakak albo batera".

■ **Hiru sindikatuek bat egiten duzue trantsizio ekosoziala ezinbesteko jotzean. Armagintzarako moldaketak balio lezake ideia bera beste sektore batzuetara ere eramateko? Autogintzara, esaterako.**

**IGLESIAS:** Trantsizioaz ari garenean dena aldatzeaz ari gara, eta bai, armagintza moldatu nahi izatea ulergarriagoa izan daitekeenez, akuilu gisa erabili dezakegu ideologizazio horretan.

**DÍAZ DE TUESTA:** Armagintza eskubide sozialekin, antimilitarismoarekin eta abar lotzen dugu, baina autoen ekoizpenarentzako arrazoi nagusiak ekologikoak dira. Hori ezberdintasun bat izan daiteke, baina, bai, guk dena lotzen dugu, beraz, izan daiteke baliagarria. ●





Jertsea **28€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkartea da Mbolo.